

Hiztegi-gintza eta euskararen normalkuntza

Miren Azkarate

Egun on guztioi.

Denok dakigunez, “Euskalgintza XXI. mendeari buruz” gai duen Biltzar hau, bereziki lehen hiru egunok, Euskaltzaindiaren sortzaile izan ziren bi euskaltzain erraldoiren, Azkueren eta Urkixoren omenez antolatuta da; eta hemen hiztegi-gintzaz zerbait esatea agindu didate. Gaia batetik eta omenduak bestetik kontuan hartuaz, berehala nabarmentzen da hiztegi-gintza gaiei dagokienez, ezin hobeto uztartzen direla Azkueren eta Urkixoren lana, euskararen normalkuntzarekin eta euskara XXI. menderako prestatzearekin. Izan ere, bi euskaltzale handien lana uztartzea izan da, nire iritziz, euskal lexikoaren normalkuntzan egin den oinarritzako lana, Mitxelenaren *Orotariko Euskal Hiztegiak* dagoeneko iragartzen zuena. Hitz batean, aipatu ditudan ardatz horiek, aukera ematen didate azaltzeko zein gogoeta-modu egin zen hiztegi-auzietan joan den mendean zehar eta non gauden mende berriaren hasieran.

Egin berri dudana baieztapena hobeto ulertuko duzue astiroago ikusten badugu zer egin zuen Azkuek, zer Urkixok eta zein irizpide izan ditugun gidari hiztegi-gintza kontuetan batasunaren historian.

Hasteko, gogoan izan behar dugu aita Villasantek behin eta berriz esaten zuena: Hiztegia eta Gramatika (edo Gramatika eta Hiztegia, nahi duzuen bezala) direla Akademia baten eginkizun nagusiak. Inguruko Akademiara begiratzea nahikoa dugu hala dela ikusteko; baina etxe barruan ere baditugu adibide bikainak, Larramendi eta Azkue lekuko. Baina har dezadan osteria hitzaldiaren haria. Azkuek hiztegi-gintzari eman ziona. Hitz kontuetan, Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko leize handi samarrenekin hasi zen joan den mendea. Hemen, mendetako tradizioa izan arren, erdal jatorriko hitzak baztertu eta horien ordean euskal ordain “jatorrak” ezartzeko ahalegin bizian genbiltzan bitartean, Iparraldeak betiko bideari eutsi zion (ez nuke aipatu gabe utzi nahi, hala ere, idazle onenek asmatu zutela gehiegikerietatik ihes egiten). Giro horretan, hiru hizkuntzako hiztegia izan arren, euskara abiapuntu zuen ondare lexikografikoa utzi zigun Azkuek; horretaz gain, irizpide jakinetan oinarritua: asmakizunik ez, berrikeriarik ez, hitzuneak eta autoreek benetan erabili zituzten eta erabiltzen zituzten hitzak ziren kontuan hartzekoak. Mitxelenak (1966 [1988]) dioen bezala, aldi berean bi hiztegi egin zituen, euskalkien hiztegia eta hiztegi historikoa. Eta, beti ere, inolako eragozpenik izan gabe, jatorria jatorri, hizkuntzak bereganatuak zituen hitzei sarrera emateko:

“En cuanto a las voces exóticas (uler bedi “arrotzak, euskal jatorrikoak ez direnak”), he incluido aquéllas que no tienen equivalente castizo y han tomado carta de naturaleza en el idioma, como *eliza, lege, errege, liburu, meza*, etc.”

dio Hiztegiako sarreran. Hala ere ohartzen da testuetan ageri diren hitz guztiak ez direla maila berean onartzekoak; Larramendiren ere salatzen zuen zabarkeriaren aurrean zuhurtziaz jokatu beharra, argi ikusten du.

Bestalde, jatorriari buruzko kezka ere ikusten da, “erdal” hitzei galdera ikurra ezartzen die eta:

“Estas voces [las exóticas, erdal jatorrikoak: *eliza, lege, errege, liburu edo meza*] y todas las del mismo género irán acompañadas de dos signos de interrogación puestos entre paréntesis. Las voces de cuyo extraño origen no tuviese completa certidumbre, irán acompañadas de un solo signo de interrogación”

Azkenik, hitz berri edo neologismoei dagokienez, uko egiten dio halakoak sartzeari:

“No he querido exponer palabras nuevas de nadie, a pesar de haber mucha necesidad; pues todavía no hay autoridad para implantarlas”

Urkixok, testu zaharrak argitaratzen, edo berrargitaratzen egin zuen lana, ostera, Azkueren saioaren osagarri bikaina da. *Revista Internacional de Estudios Vascos*-en argitaratu zituen autore zaharren lanetara jotzen dugu oraindik ere. Azkuek eskurara izan zitzakeen literatura-lanak osatu, zabaldu, egin zituen Urkixok; lan horietara iristeko bideak erraztu.

Eta, funtsean, ondare hori eskuetan zuela ekin zion batasunaren lanari Euskaltzaindiak 1968an. Hiztegiak kontuez ari naiz, jakina. Eta Arantzazuko txostenean, Azkuek bere Hiztegiaren sarreran bezalaxe, antzinako euskal hitzak eta hitz berriak bereizi zituen Mitxelenak. Urrats bat gehiago eginaz, ordea. Orain auzia “batasunerako” hiztegia egitea baitzen, ez hiztegi dialektal-historikoa. Beraz, nahitaezkoak ziren irizpideak, batasunerako lexikoan nola jokatu argituko zutenak. Utziezadazue laburki aipatzen duela 30 urte baino gehiago Mitxelenak aipatzen zituen norabideak. Lehenik eta behin, erabilerak eta tradizioak ematen diote edozein hitzi behar duen bermea:

“antzinatasunak ematen dio soil-soilik hitz bati jatortasuna (...) Batasunik baldin bada gure artean gai honetan, hots, hitzen bat euskaldun guztiek edo gehien-gehienek badarabilte, hori da, besterik gabe, onhartu behar duguna.”

Bat dator, beraz, Mitxelena, Azkueren jokamoldearekin. Euskaltzaindiaren 1959ko agiri ezagunaren ondoren, “Euskaltzaindiaren agiria euskal itzei buruz”, jatorriaren gaineko eztabaida amaitutzat eman daiteke. Kontuan hartu beharrekoa ez da jatorria, erabilera baizik. Mitxelenak zioen bezala, “Euskaltzaindia (...) aberastasunari begira dago beti, garbitasunari baino areago”.

Euskaldunen arteko erabileran batasuna egotea aipatzen du lehenik Mitxelenak, ikusi dugun bezala. Askotan, ordea, ez da halakorik gertatzen. Batasunik ez denean, bi moldetakoak izan ohi ditugu desberdintasunak:

- alderdi bateko eta besteko hitzek ez dute itxuraz elkarrekin zer ikusirik (*ahaide* eta *askazi*, *etorri* eta *jin*, *jalgi* eta *irten*). Hauetan, berez, ditekanean gauza da guztiez baliatzea, Azkuek eta nahi zuten gisara, bakoitzaren adiera, zentzua eta esan-nahia geure oldearen eta gogoaren arabera mugatuaz: erabil dezagun *aurkitu*, adibidez, galdu zitzaigun papera berriz hatzematzen dugunean, eta *eriden* lege ezezagunen bat, fisikan edo, asmatzen badugu. Baina ez da aski nahi izatea, ahal izatea ere beharrezkoa baita. Honelako mugaketak, egia, egunoroak dira egiunez eta tratuz tinkatzen diren (zati-

hizkuntza artifizialetan, hau da, jakite- eta teknika-hizkuntzetan, baina ez dira gertatzen usuak hizkuntza bizi eta naturaletan. Haietan ere, eskolak eta landatu eta sendotu behar ditu.

Nolanahi ere, bereizkuntza “artifizial” horiek egin edo ez egin, hitz horiek guztiak dira batasunerako baliagarri:

“Euskaltzaindiak ezin arbuia dezake euskal-hitzik, ez hangorik ez hemengorik, ez zaharrik ez berriagorik” dio Mitxelena. Baina euskal hitzen ondare horretan aukeak egiteko, mailak ezartzeko, irizpide bat edo beste ematen digu:

“(Euskaltzaindiak) nahiago ditu bizi-bizirik dirautenak (hitzak, jakina) zaharkituak baino; gehiago erabiltzen direnak eta zabalago hedatuak daudenak”

- Euskalkietako ondarean elkarren itxuraldatze besterik ez diren hitzak ditugunean, oinarri har daitezkeen zenbait iritzi aipatzen zituen Mitxelena, “bide garbirik maizegi ikusten ez bada ere” aitortuz:

- euskalki guztiek (euskarak berak, horrenbestez) egin dituen aldakuntzak, nahiz modua ez beti arras berdina izan, dira, hain zuzen, onartzekoak. *Arima*, esate baterako, garai bateko testuetan ageri den forma bakarra, eta ez *anima*.
- forma zaharrago eta berriagoen artean, zein zein den nabari denean, zaharragoei dago-lagun nagusitasuna. Batzuetan, haatik, zaharrak zaharregiak dira (*azeari*, esate baterako), eta beste batzuetan elkarren etsai agertzen zaizkigu zahartasuna eta jatortasuna, euskal forma berezia (*probetsu* / *progotxu* / *protxu*)
- bazter euskalkien forma bereziek esku argala dute besteen aldamenean. Badirudi, beraz, bazter euskalki horiek makurtu behar luketela zenbait alditan erdikoan alde, hala nola hitz hauetan: *ultze*, *ukuzi*, *bühür*, *sentu*...
- bazterrekoak bat datozenean, berriz, indar gehiago dute erdikoek baino: *burdina*, adibidez, hobe Gipuzkoako *burni(a)* baino

Hauek, eta beste hainbat puntu aipatu ondoren, hauxe dio Mitxelena:

“beharrezkoa dugu, bederen, hiztegitxo bat, ia ortografiarekikoa huts-hutsik, nahitaezkoa badu ere hitzen esan-nahia laburzki adieraztea, zertaz ari den jakin dezagun. Orain idazten diren euskalkiak kontuan edukitzekoak dira, noski, batasun osorik ez duguino eta, euskara idatzia duenez gero oinharri, zenbait idazle hauturen hiztegiaren gain eraiki behar litzateke”.

Eta 1968an ikusten zuen arriskuaz ohartarazten gaitu:

“Oroitu gaituz beti euskalkiak gero eta gehiago bereizten ari zaizkizun mugaz, batez ere hiztegi-aldetik. Nahiz Lapurdikoa, adibidez, giputzaren kide hurbilagoa izan hizkuntzalaritza batentzat bizkaitarra baino, maiz aski baterago gero hitzetan giputz-bizkaitarrak giputz-lapurta bako bako, erdal giro batean bizi gero Hego-aldekoak eta bestean Ipar aldekoak”.

Aurreratxoago berriro honetaz jardungo dudana arren, ezin uka orain dela 30 urte Mitxelena kezka-iturri zena gaur ere halatsa dela. *Euskara Batua Ajeak* irakurri duenak badaki horren berri.

Mitxelena 1968an beharrezko ikusten zuen hiztegi ortografikoa hura da Hiztegi Batua, sarrerako pasarte honek erakusten duen bezala:

“Argi dago Euskaltzaindiaren Hiztegi Batua, lehen idatzaldi honetan, ortografia hiztegia dela batez ere, hau da, hitzen *forma* egokiaz ari dena. Ez da hori harrizkoa, arautze bidean gertatzen diren hizkuntza guztiek urrats hori egiten baitute lehenik”

Eta 1968an eskatzen zena egiteko hogeita hamabi urte behar izan ditu Euskaltzaindiak? Hiztegi Batuaren lehen idatzaldi hori, 2000 urtean argitaratu da eta. Batek baino gehiagok astiroegi gabiltzala leporatu arren, *Orotariko Euskal Hiztegia* eta horren oinarrian dagoen *corpusa* euskarri egokian erabili ahal izatea, ezinbestekoak ziren azken hamarkadako lana burutu ahal izateko. Azkuek bere hiztegia osa-tzeko erabili zituen testuak osatu beharra zegoen, eta aitortu dugu horretan Urkixok eginitako ahalegina. Baina ordenagailuen aroak hiztegiak egiteko beste molde bat ekarri zuen, zorionez. Azkueren hiztegia osatu eta eguneratzeko Mitxelena urte luzetan egindako lana, zapata kaxetan jasoriko fitxa-bilduma, bere horretan baliatu behar-rean, testuak osorik eskanea zitezkeen. Testu horietako hitzak eta zegozkien testuinguruak atera. Programa egokien bidez, lerro bateko testuingurua baino luzeagoak ere lortu; pazientzia pitin batekin (behar bada pitin batekin baino gehiagorekin) lematizazioa egin... Uste dut hemen gauden guztiok ohartzen garela zenbaterainoko aldaketa ekarri duen informatizazioak. Besteak beste, zenbaterainoko ziurtasuna izan dezakegun gaur hitz jakin baten hedaduraz, euskalkietan izan dituen aldaerez, adierez... Gaurko ikuspegiarekin esango nuke nahitaezko baldintza zela hori Mitxelena 1968an aipatzen zituen irizpideen arabera jokatzeko; zehazkiago esanda, irizpide horiek berme gutxienekoarekin aplikatu ahal izateko. Eta horixe izan da, nire iritziz, Hiztegi Batuko lehen itzuliaren emaitza nagusia, nahiz ondoren beste alderdi garrantzitsu batez ere jardungo dudana.

Horaxeago aipatutako irizpideak eta Hiztegi Batuaren sarreran jasotzen direnak alderatzen baditugu, berehala jabetuko gara Arantzazuko lerro haiek garatzea baino ez dela izan azken urteetako ahalegina. Euskalkietako lexiko altxorri dagokionez; eta, aldi berean, Azkueren jokabidea sendestea:

Azkue:

Hitz bakoitzari, zegokion euskalki eta azpieuskalki marka eman zion.

Mitxelena:

Itxuraz zerikusirik ez duten hitzak, guztiak dira baliagarri (“Euskaltzaindiak ezin arbuia dezake euskal-hitzik, ez hangorik ez hemengorik, ez zaharrik ez berriagorik”).

Hiztegi Batua:

“Hainbat hitzen formaren ondoan, *Bizk.*, *Ipar.* eta *Naf.*, *Gip.*... ikurrak eman ditugu. Euskalki markaren bat azaltzen duten hitz horiei buruz esan behar da ez dela inondik ere Euskaltzaindiaren asmoa, marka horiek eranstea, horrelako hitzak baztertea; aitzitik, euskalki hitzok Euskara Batuan sartzeak adierazten du Euskaltzaindiak bultzatu egin nahi dituela idazleak horiek erabiltzera –jakinaren gainean eta nori bere senak agintzen dion eran, jakina- horrela euskaldun guztien ondare komuna bihurtuz joan daitezen”.

Eta Hiztegi Batuko sarrerako lerro hauetan aldarrikatzen denaz zerbait gehiago ere esan nahiko nuke. Bai baitugu joera Euskaltzaindiak eginitako aukerak baino estua-goak egiteko batasunaren eremuan. Oso ondo adierazi zuen hori Pello Salaburuk, 1994an Leioan egindako XIII. Biltzarrean, euskara batu formala eta euskara batu soziologikoa bereiztean:

“Anitzetan gertatzen da jendeak euskara batua deitzen diola berez euskara batua ez denari. Batek baino gehiagok, testu bat euskara batuan jar dezan eskatzen badiogu, segur naiz “guti goiti-beheiti”, “gibelean”, “jalgi”, “abian jarri”, “etortzen balitz”, “jin”, “berba”... bezalakoak aurkituko balitu eta den-denak ulertuko balitu ere, aldamenen jarriko litzukela “gutxi gora-behera”, “atzean”, “atera” edo “irten”... Proba egitea baino ez da. (...)

Bada “jin” eta “gibelean” hitz gizajoeak “etorri” eta “atzean” hitz ponpoxoek adinako eskubidea dute batutzat hartzeko”.

Horixe da Hiztegi Batuak aldarrikatu nahi izan duena. Eta on da hori begien aurrean izatea, zilegitasun osoz, euskara batuaren ondoan, eta honen beharra ukatu gabe, euskalkiak ere ate-joka ditugunean, leku bila dabiltzanean. Biltzar honetan bertan jardun kontu dugu kontu hauetaz.

Baina itxura desberdineko hitzak izateaz gain, hedadura ere kontuan hartzen zuen Mitxelenak.

Mitxelena:

“(Euskaltzaindiak) nahiago ditu bizi-bizirik dirautenak (hitzak, jakina) zaharkituak baino; gehiago erabiltzen direnak eta zabalago hedatuak daudenak”.

Hiztegi Batua:

“Erabileraren aldetik, hitz zaharkituak *-zah.-*, gutxi erabili direnak *-g.er.-* eta gaur egun gutxi erabiltzen direnak *-g.g.er.-* ere markatu dira”.

Areago:

“Hainbat sarreratan hitzaren maila adierazi da, behe mailakoak –lagunartekoak eta herrikoiak- eta goi mailakoak edo jasoak –literarioak etab.- bereiziz”.

Hau da, euskalkietako hitz-ondaretik abiatuta, batasunak nahitaezko duen sistematizazio eta mailakatze-lana da tradizioaren altxorrean Hiztegi Batuak dakarrena. Eta kontu honetan, hiztegi gintza lan osoan bezala, ezinbestekoa da Ibon Sarasolaren lana aitortzea, bera izan zen eta Arantzazuko Biltzarraren ondotik, *Euskal Hiztegi Arau-emailea* lantzean lehenik eta *Euskal Hiztegia*-ren bidez ondoren, euskal lexikoren itsaso zabala sistematizatu eta mailak ezartzen behin eta berriz saiatu dena.

Itxura desberdineko hitzez gain, baina, badira funtsean hitz beraren aldaera besterik ez diren formak ere. Horietan nola jokatu, bidea erakutsi zuen Mitxelenak, eta bide horretatik ibili da Euskaltzaindia aukerak egitean.

Mitxelena:

“Euskalki guztiek egin dituzten aldakuntzak dira onartzekoak”: *arima*.

Hiztegi Batua:

forma zahar komuna da hobestekoa.

Mitxelena:

forma zaharago eta berriagoen artean, zein zein den nabari denean, zaharragoei dagokie nagusitasuna.

Hiztegi Batua:

forma zahar komuna da hobestekoa, euskalki batek eraberritzean sortu denean bitasuna (burraso* e. *guraso*).

forma zahar komuna da hobestekoa, analogiaz eratutako berri(ago)ak hautsi duenean bitasuna.

Mitxelena:

bazter euskalkien forma bereziek esku argala dute besteen aldamenean. Badirudi, beraz, bazter euskalki horiek makurtu behar luketela zenbait alditan erdikoan alde, hala nola hitz hauetan: *ultze, ukuzi, bühür, sento...*

bazterrekoak bat datozenean, berriz, indar gehiago dute erdikoek baino: *burdina, adibidez*, hobe Gipuzkoako *burni(a)* baino.

Hiztegi Batua:

Formarik hedatuenak dira hobestekoak
aldaeretan, ertz biak bat datozenean, hori da hobestekoak.

Hiztegi Batuko formak erabakitzeko irizpide-sorta mardulagoa darabilkigun arren, uste dut aipatuak nahikoa direla, Arantzazutik gaur arte aldaketa nabarmenik ez dela izan erakusteko.

Beraz, gure literatura-tradizioa biltzen duen *Orotariko Euskal Hiztegi*-ko corpuseko hitz nagusiak jasoak baditugu, zer geratzen zaigu eginkizun, ezer geratzen bazaigu? Hiru puntu azpimarratu nahi ditut XXI. mendeko euskarak beharko dituenak, nire iritziz behintzat.

- 1) Literaturako lan nagusiak bildu arren, badira bere garaian ezin izan zelako corpusean sartu gabe geratu ziren idatziak. Besteak beste, Xarrittonek hainbestetan gogorarazten dizkigun Etxepare medikuaren idazlan guztiak, adibide bat ematearren.
- 2) Orain arteko kezka nagusia literatura-tradizioa biltzea izan bada ere –eta guztiz bidezko da, literatura-tradizioan, idazle onenen erabileran oinarritu baita beste leku batzuetan ere hizkuntza estandarra-, ezin dugu ahantzi gurean ahozko tradizioak duen pisua, eta hor dugun hitzen altxorra. *Euskal Herriko Hizkuntza Atlas*a egiteko, esaterako, ehundaka grabazio egin dira.
- 3) Azkenik, oso kontuan hartzekoa da *Orotariko Euskal Hiztegi*-ko corpusak 1970 arteko idazlanak jasotzen dituela. Eta ordutik hona, zorionez, idazlan bikainak sortu dituzte euskal idazleek, hasi berria dugun mendeak aurrera egin ahala, merezimendu osoz, “aurreko literatura-tradiziotzat” hartu beharko dituztenak. Eta gerora ere, euskara bizi bada, izango dira berriak. Azken batean hauxe esan nahi dut: aurrerapauso erraldoia izan da *Orotariko Euskal Hiztegia*-ren corpusa eskura izatea; baina etengabeko eguneratzea eskatzen duen corpusa da.

Nola egin aurre eginkizun hauei? XXI. mendeak eskatzen duen Euskararen Corpora sortuaz. Ahozko tradizioa, literatura eta bestelako testuak ere, ondo orekatu-rik, bilduko dituen Corpora. Baina izango dugu aukera Biltzar honetan behar dugun corpus berriaz jarduteko.

Guztiok dakigu, ordea, orain arte esanek ez dietela hiztegi-gintzako behar guztiei erantzuten. Tradizioko hitzen ondareaz jardun dut, hitz berriak alde batera utziaz. Eta badakigu XXI. menderako behar gorriena, gaurko gizarteak eskatzen duena, lexikoa berritu eta egokitzea dela. Ez da baina gaurko kezka. Hortxe dugu Larramendiren ahalegina XVIII. mendean, baita Urterena ere, eta, oro har, erdaretatik abiatuta euskal ordainak aurkitzen saiatu diren hiztegi-gile guztiena:

“Además del Lenguaje vulgar, y de sus voces pongo en este Diccionario las voces que pertenecen a las Facultades, Artes y Ciencias. En quanto a éstas en un sentido puede decirse, que el Bascuence es pobre, y que no tiene voces suyas: y en otro sentido puede, y debe decirse, que tiene todas las necesarias propias de sus raices, y origen. En el primer sentido el Bascuence no ha necesitado de voces propias ni ajenas, porque ninguno ha hablado ni escrito en Bascuence en las Facultades, y Ciencias, ni ha pensado, que sea Lengua oportuna para hablar en ellas. Ahora está en otra disposicion el Bascuence, y en punto para hablarse en qualquiera Ciencia, y Facultad: y es la ocasion de buscar las

voces oportunas, que hasta aora no ha tenido, ò tomandolas de otras Lenguas, ò inventandolas, ò formandolas de sus fecundas raíces”

zioen Larramendik eta lerro horietan biltzen dira, ezin egokiago, lexikoa berri-tzeko ditugun aukerak. Larramendik zioena, orduan zegoela euskara edozein zient-zieztzeko jarduteko egoeran, inoiz baino egiago bihurtu zaigu azken urteotan. Hobeto esanda, “jarduteko egoeran” baino areago, “edozein zientziaz, administrazioaz, hez-kuntzaz jardun beharrean” aurkitu da euskara mende honetan zehar, eta bereziki azken hogeita hamar urteotan. Eta Euskaltzaindia hasieratik jabetu zen horretaz.

Egia da, hitzaldiaren hasieran esan dudan bezala, Azkuek, bere hiztegian hitz berririk ez sartzeko erabakia hartu zuela:

“No he querido exponer palabras nuevas de nadie, a pesar de haber mucha necesidad; pues todavía no hay autoridad para implantarlas”;

baina aipamen horretan bertan aitortzen du benetako beharra dagoela hitz berriena. Mikel Zalbidek, 1991an, Hiztegi gintzako III. Jardunaldietan irakurri zuen lan mamitsuan Euskaltzaindiak lexiko-berrikuntzaren alorrean nolako jardupidea izan duen aipatzean zioena ekarri nahi dut hona. Gaztelania-euskara hiztegia egiten urte-aldi luzexka emana zuen Euskaltzaindiak, gerra aurrean, Azkueren zuzendaritzapean. Eta berriro lanari heldua zioten, gerra amaitu ondoren. Eta lan horretan hartutako era-bakiak aztertzean, hauxe da Zalbidek ateratzen duen ondorioa:

“Hiru bide-edo agertu izan dira, lexiko-berrikuntza nola bideratu erabakitzerakoan, hau-takizun: nolabait baieztatzearen, aitzindari-bidea deituko diot lehenengoari, aitorle-bidea bigarrenari eta, azkenik, elkargile-bidea aurreko beste bien tarte-bitartean dagoen sintesi-bideari.

Aitzindari-bide honen lekuko ditugu, gerra aurrean, honako adibideok:

- a) 1922ko apirilaren 27an, “aurrerantzean erderazko *gono* esateko euskeraz *ertz* erabil bedi, ta *edro* esateko, berriz *egal*” erabaki zuen Euskaltzaindiak
- b) 1926ko otsailaren 19an, berriz, “*amerizar* edo *amarar* erdalduen darabilen hitzaren ikurpenez, *uretaratu* euskaraz esan behar dala” erabaki zuen.

Beti ez zen, ordea, bete-betean aitzindari-bide honetara lerratzen. 1926ko gara-garrilaren 25eko batzaldian, adibidez, *antzoki* hitzak zirela eta horra kontuak nola gertatu ziren:

“Antzoki-itzak. Azkue jaunak, arlo auxe gai artu-ta, txosten bat irakurri digu, esanik, ez dala nolana izen berririk sortu bear. Arau batzuek dakarzki, auxe ondo moldatzeko. Mujika jaunak iardetsi diyo esanik: arau oyek eder izanarren, ez dirala gai ontan antza-kotzat (sic) artu bear, badabiltzalako lendikan izen berriyak eta abo askotan oituak, esate baterako *antzoki* (teatro), *iruditegi* (escenario)”.

Horra hor, bere soil-biluzian –dio Zalbidek- aitzindari-irizpidea (Azkuerena) eta aitorle-irizpidea (Mujikarena) aurrez aurre. Aitzindari-irizpideak hitz berriak sortzera darama hizkuntzalari edo euskaltzaina. Hitz-erabide arruntez, normalean: eratorpe-nez, hitz-elkarketaz, maileguz, zabalkuntza semantikoz edo berrezarpen lexikalez (...) Arau batzuk oinarri hartuz hitz berriak moldatzera jotzen du, kontenplazio handiegi-rik gabe, aitzindari-bidearen aldekoak. Hitzen erabideari buruzko arau egokiak apli-katzea baizik ez dago, aitzindari-zalearentzat, euskararen lexiko-berrikuntza eragite-ko.

Herriak ikasi egin behar ditu hitz horiek: lehendik ezer erabiltzen ez bazuen hori esateko, ikas dezala aurrerantzean nola esan; eta, ordurarte beste era batera esan bazuen, ahaztu dezala hura eta arau egokien arabera moldaturiko berria ikas dezala.

Horren aurrez aurreko punta-muturrean dago, bestalde, aitorle-irizpidearen araberakoa: aztertu egin behar da lehenik jendeak hitz berri horiek nola esaten dituen; erabakiak hartzerakoan idazle-jendeari eman behar zaio, batez ere, lehentasuna. “Notario”-lana egitea besterik ez du Euskaltzaindiak izango: erdal *teatro* euskaraz *antzoki* esaten dela aitortzea, edota erdal *escenario* euskaraz *iruditegi* esaten (omen) dela erabakitzea”.

“Beti egon izan da Euskaltzaindian, gutxi edo asko, muturbide bi horien arteko kinka eta tirabira. Eta orain ere bai. Egoeraren larriak eta beharraren gorriak hitz berriak sortzera, ahalik eta modu egokienean baina berehala eta ugari sortzera, bultzatu izan du eta bultzatzen du aitzindari-irizpideak. Euskaldunek, oro har, eta euskal idazleek bereziki, hitz berrien kontuak bideratu, landu eta umotu artean alferrikakoak (edo are kaltegarri) gertatu omen daitezkeen neurriak ez hartzera bultzatu eta bultzatzen du, aitzitik, aitorle-irizpideak”.

Horrela ikusten zuen Mikel Zalbidek Euskaltzaindia 1991an. Bestalde, aitzindari izatekotan, zein bidetatik jo ere erabaki behar izaten da: mailegu-bidez ala euskararen barrutik hitz berriak sortuak. Bi kontu dira, beraz, joan den mende osoan zehar eztabaidagai izan ditugunak, eta mende berrian ere hortxe ditugunak:

- 1) Zalbideren hitzez baliatuaz, aitzindari, aitorle ala elkargile izan behar du Euskaltzaindiak?
- 2) Aitzindari-bidea hautatzean, noiz egin maileguen aldeko apustua eta noiz hitz berria sortzekoa?

Jakingarriak dira oso, nire ustez, Altubek (1920a, 1920b, 1933a, 1933b, 1936) gerraurrean eta batez ere Villasantek (1956, 1959, 1963, 1968) gerraostean esan eta idatzitakoak hitz berrien eta maileguen auzian. Bi euskaltzainen ideia nagusiak bilduaz, ondorio hauek atera ditzakegu (aipatu baino ez ditut egingo beste nonbait luze samar mintzatu bainintzen honetaz):

- mailegu onartzekoak dira “mundu guztikoak” direnak, gaur nazioarteko deitzen diegunak
- onartzekoak dira, halaber, benetan hedatuak daudenak, bereziki euskal ordainak askoz hedadura gutxiago duenean
- mailegua baztertu eta hitz berria sortzekotan, ongi eratua izan beharko du, eta ulertteraza. Eta, Altuberen ustez, errazagoa izango da hitz berria sortzea mailegua oraindik hizkuntzan errotu gabe badago. Hau da, hitz berriak sortzea, ideia edo gauza berriak, euskaraz oraindik izenik ez dutenak, izendatzeko. Villasante (1956: 267), berriz, zabalago uzten ditu ateak: “Kontzeptu horiek, kanpotik ekarritako hitzekin edo euskal sustraizkoekin behar ote diren adierazi, hori beste auzi bat da. Beharbada batzuetan bide bat, eta besteetan beste bat jarraitzea izango da onena”.
- Azkenik, Villasantek (1956: 258) kontsentsuaren beharra ere azpimarratu zuen: “Izenok, tresna trebeak izateko, hauxe behar dute nahi eta nahi ez, alegia, zabalduz gotea, onartuak izatea”.

Hitza oraindik erabili ez badut ere, argi dago terminologiaren arloan gaudela bete-betean, nahiz egin den modu berean lexiko arruntaren eta terminoen arteko muga

benetan xumea dela. Informatika, ekonomia, merkataritza, administrazioa... egunero-ko bizitzan, hiritar guztien bizimoduan sartuak ditugu. Eta arlo horietako hamaikatzeko hitz izaten ditugu ezpainetan egunero.

Arantzazuko Biltzarreko txostenean ere arduratu zen Mitxelena gai honetaz, mailegua hartu edo hitz berria sortu, bi bideak beharko genituela aitortuaz.

Mitxelena:

“Hizkuntza bizia hitz berrien premian da beti: bere baitarik sortzen ditu batzuetan, besterengandik hartu besteetan. Bi bideak zilegi eta beharrezko dira eta nork taxutuko du alde zuzenetik bakoitzaren neurria eta mugak?”

Kultura-gaietan hartzaile –bestearen zordun, beraz- geranez gero, bidezko da, noski, hiztegiaren ere hartzaile eta zordun agertzea. Gogoetak gerok sortu bagenitu, ez genduke gabiltzan bezala jakite-gauzetan eta, beste hizkuntzetan sortu dituzten hitzak itzuli nahian ibili beharrik. Gauden gaudenean, ordea, maiz nabaritzen dugu premia hori. Badu euskerak hitz-sorbide ugari, baina baita ere huts nabarmen bat bederen aldameneko hizkuntzen ondoan. Ez dugu (*des-* eta horren antzekoren bat kenduz geroz) aurrizkirik (...) Erremedio bat baino gehiago izan dezake huts horrek, baina ongi pentsatu behar litzake gerora gabe nola joka.

Bestetariko hitzak lehen hartu ditugu, eta ez dago beste biderik, aurrera ere. Hitz horien itxuraz, ordea, bi iritzi dabilta gure artean: itxura hori, etorkizkoa alegia, gorde nahi lukete batzuek egin-ahalean, frantsesaren arabera edo, eta itxura aldatzea, xinpletzea, gogokoago dute besteek, gaztelaniaren arabera”.

Nik esan beharrik gabe, badakizue Mitxelenak 1968an planteatzen zituen auzietako batzuk dagoeneko erabakiak ditugula. Maileguak egokitze arauak eman zituen Euskaltzaindiak eta han guztiz lotu gabe geratu ziren kontuak, “g” eta “j” idazkerarena, esaterako, Ahoskera Zaindurako Arauak ematean eta Hiztegi Batuko lehen idatzaldia lantzean argitu ahal izan dugu.

Hitz berriekin, eta maileguekin Hiztegi Batuan nola jokatu den, zein irizpide erabili dugun azaldu aurretik, “aitzindari” / “aitorle” izatearen auzira itzuli nahi nuke. Ez da zalantzarik behin baino gehiagotan aitzindari izan dela Euskaltzaindia, *Matematika Hiztegia* edo *Zortzi urte arteko Ikastola Hiztegia* argitaratzean. Baina idazleek zer zerabilten jakiteko kezka ere izan zuen. Horregatik erabaki zen *Eguno Euskararen Bilketa-lan Sistematikoa* izeneko corpusa sortzea, XX. mendeko euskal testuak, mota guztietakoak (eta ez literaturakoak bakarrik) bilduko zituena. *EEBS* laburduraz ezagutzen dugun corpusa, *Orotariko Euskal Hiztegia*-ren osagarri ezinbestekoa izan da Hiztegi Batuko lehen idatzaldia osatzeko.

Bigarren puntua dugu, ordea, eztabaida handienak sortzen dituenak. Noiz hartu mailegua, noiz sortu hitz berria. Zein mailegu dira onartzekoak eta zein baztertzekoak, euskara baturako? Hauek dira Hiztegi Batuan gidari izan ditugun irizpideak, bigarren itzulian ere begien aurrean ditugunak.

Hiztegi Batua: onartzen diren maileguak:

nazioartekoa delako (eta besterik gabe onartzen da): *dekalogo*, *immunitate*, *polisemia*, *ikonoklasta* edo *diuretiko*

nazioarteko forma da (edo gutxieneko baldintza betetzen duena), eta onartzekoa, euskal osakerako baliokide(ar)ekin batera. Irizpide beraren arabera, izenondo erreferentziala eta

konposizioa ere parean ematekoak dira behin baino gehiagotan: *pistilo* eta *lore-orratz*, *bela* eta *haize-oihal*

nazioarteko forma da, eta onartzekoa, erabileremua(k) mugatuz, hots: erdarazko adiera batzuetan ez dela egokia markatuz. *Diskretu Mat.* ‘jarraitua ez dena’. *Deklaratu* 1. (epai-ketaren inguruko adierarekin batez ere). 2 h. *adierazi*, *agertu*, *aitortu*, *azaldu*, etab.

ez du "gutxieneko baldintza" betetzen (gaztelania eta frantsesa bide banatatik dabilta), baina onartzekoa da:

- nazioarteko formatik hurbilena edo forma nazioarteko(en)a da hobestekoa
- ezaguna da bai Ipar. eta bai Heg. (gaztelaniatikoa izan nahiz frantsesetikoa)
- mugaren bi aldeetan da hedatuena (aldeetako batean beste bat erabiliagoa izan arren): *alikota*
- erdaretako batetikoa onartu da, bakarra aski delakoan
- gaztelaniatiko eta frantsesetiko mailegu biak onartu dira bigarren mailan, euskal ordain posiblea indartzeko, honetarako bidalketak eginez: *koltxoi*, *matalaz* vs. *lastaira*
- lantaldeak ezin ezar dezake forma baturik Euskal Herri osorako, eta erabiltzen diren biak jaso ditu.

Bereziki aipatzen da azken kasua Hiztegi Batuaren sarreran:

“*Heg.* ikurra daramaten hitz askok bikotea osatzen dute Ipar. marka daraman besteren batekin, *Heg.* ikurra duen *alfonbra*-k *Ipar.* duen *tapiz*-ekin adibidez. Kasu hauetan Euskaltzaindia ez da gauza izan euskaldun guztiok batu gaitzakeen forma bakar bat eskaintzeko, eta, oraingoz, horrelako bikoteekin etsi behar izan du”

Beste askotan, ez da maileguaren beharrik ikusi, horretarako bazegoelako euskal izena ongi eratua eta hedatua. Jokabide honen adibide ditugu: edifizio* e. *eraikin*; bolkan* e. *sumendi*; beterinario* e. *albaitari*; minoria* e. *gutxiengo*, etab.

Hiztegi Batuan eginiko aukerez izan ditzakezen zalantza eta oharak eztabaidagarairako utziaz, aitzindari edo aitorle izatearen auzira itzuli nahi dut amaitu aurretik. Tradizioko hitz-altxorri eskaini diodan atalaren amaieran eginiko galdera bera egin behar baitugu hitz berrien eta terminologiaren alorrean ere. Eta hemendik aurrera, XXI. mendearen atarian, zer?

- 1) Lehenik eta behin, hizkuntzaren normalkuntzan terminologia, hitz berriak, zein garrantzitsuak diren aldarrikatu behar da (nahiz honetaz guztiok jabetzen garela uste izan). Oso argi ikusi zen hori Pompeu Fabra unibertsitatean aurtengo maiatzaren 18an egin zen Terminologia Jardunaldian. Hizlari guztiek azpimarratu zuten terminologiarik gabe, hizkuntza bat ez dela osoa izango. Beraz, euskara biziko bada, eta ez erabileremu jakin batzuetara mugaturik geratu, terminologia normalizatzea ezinbestekoa izango dugu.
- 2) Lexiko arrunta eta lexiko berezitua, eguneroko hitzak eta terminoak, errealtate bakarraren bi alderdi baino ez dira. Hau da, hiztegi-gintza osotasun bezala hartu behar dugu, eta, ondorioz, irizpide-sorta parekoak baliatu lexiko arrunta eta terminoak normalizatzeko.
- 3) Euskaltzaindiak, Hiztegi Batuaren bigarren itzulian, eguneroko bizitzarako beharrezko ditugun hitzak hartuko ditu kontuan.

- 4) Bakarrik jardun ordez, badakigu euskalgintzan dihardutenen laguntzaren beharra dugula. Horregatik antolatu ditugu lantaldeak, lagun diezaguten erabakitzen, irakaskuntzan, administrazioan eta zuzenbidean, edo komunikabideetan erabiltzen dituzten hitzetatik zein diren 45.000 sarrera inguruko Hiztegi Batuan normalizatu beharrekoak.
- 5) Lan horretan, batzuetan aitorle izan beharko dugu. Hedatua eta onartua dagoen terminoa onartuaz, lehenxeago aipatu ditudan irizpideak betetzen baditu behintzat. Beste askotan, aitzindari izan beharko dugu (bai euskaltzainek eta bai, oro har, lantaldetan gurekin batera dihardutenek), erdal hitzetik abiatuko baikara. Hasi orduko izan dugu aukera horrelako adibideak ikusteko. Onartzekoa ez den *abrelatas*-en ordain egokia eztabaidatu genueneko datorkit gogora. Eta nola gizarteratu behar dugun erdal *abrelatas*-en euskal ordain normalizatua zein den.
- 6) Nolanahi ere, noiz izan gaitezkeen aitorle eta noiz aitzindari, askoz ziurtasun handiagoz jokatu ahal izango dugu lehen ere aipatu dudana Corpusa osatzen badugu. Literaturako testuez eta ahozko hitzen altxorra biltzen dutenez gain, bestelakoak ere, “teknikoak” nahi baduzue, bilduko dituen Corpus handia osatzen badugu. Orduan ikusiko dugu, alorrez alor, hitz bakoitzak zein hedadura duen eta geuk onartutako irizpideen arabera, onargarria den ala ez.
- 7) Baina kontsiderazio hauen guztien gainetik, Mitxelenaren hitzak oroituaz amaitu nahiko nuke hitzaldia: “Oroit gaitezen beti euskalkiak gero eta gehiago bereizten ari zaigun mugaz, batez ere hiztegi-aldetik”. Areago esango nuke, “batez ere hiztegi aldetik” hori ken daitekeela erraz asko, eta “oroit gaitezen beti euskalkiak gero eta gehiago bereizten ari zaigun mugaz” oheburuan ezarri. Izan ere, hitzak normalizatzea, batasunerako erabaki egokiak hartzea funtsezkoa da hizkuntzaren estandarizazioan. Baina hitzak gero josi egin behar dira eta hor gabilta makur askotan. Egia da aurrera pauso handiak egin direla azken urteotan. Baina, batez ere irakaskuntzan, eta bereziki unibertsitatean ikusten dudana egoerak kezkatzen nau. Nik baino hobeto jakingo dute zenbait kontzeptu euskaraz nola eman; baina testu osoa irakurtzean, zer egin ote dugun gaizki galdetzen diot neure buruari, D ereduko umeek, hemezortzi edo hemeretzi urterekin horrela idazten badute.

Hiztegi gintza funtsezkoa da, terminologia horren osagai nahitaezkoa. Eta batasunerako irizpide egokiak hautatzea behar-beharrezkoa da hizkuntzaren normalkuntzarako. Baina, esan bezala, hitzak josi egin behar dira, euskal moldeen arabera, euskaraz pentsatuaz. Beraz, “oroit gaitezen beti euskalkiak gero eta gehiago bereizten ari zaigun mugaz” edo, nahiago baduzue “oroit gaitezen beti euskalkiak gero eta gehiago bereizten ari zaizkigun gatzelaniaz eta frantsesaz”.

BIBLIOGRAFIA

- ALTUBE, S. (1920a). “Erderatiko-itzak, itz-barriak eta aintxiña-itzak”, *Euskera* 1919-1920, 44-54
- (1920b). “Euskaltzain berriak, bere sarrerako egunean, Bilbo’n lotzilaren 28an irakurritako lana”, *Euskera* 1920-1921, II, 1, 3-49

- _____ (1933a). “La Vida del Euskera”, *Euskera* XIV-XV, 299-397.
- _____ (1933b). “Euskaltzaindiari”, *Euskera* XIV-III, 263-265.
- _____ (1936). “Más sobre la vida del euskera. Barriro euskeraren bizitzari buruz”, *Euskera* XVII, 1-4, 1-92.
- AZKUE, R. M. (1905-1906). *Diccionario vasco-español-francés* (1969. Bilbao: La Gran Enciclopedia Vasca).
- EUSKALTZAINDIA, (1959). “Euskaltzaindiaren agiria euskal itzei buruz”, *Euskera* 4, 214-215.
- _____ (2000). *Hiztegi Batua*, (= *Euskera* 45).
- LARRAMENDI, M. (1745). *Diccionario trilingüe del castellano, bascuence y latin* (1984. San Sebastián: Txertoa).
- MICHELENA, L. (1966). “Azkue lexicógrafo” in *Don Resurrección María de Azkue* (L. Michelena, J. Caro Baroja, A. Tovar). Bilbao (=1988 *Sobre Historia de la Lengua Vasca* I, Anejos del Anuario del Seminario de Filología Vasca “Julio de Urquijo” 10. Donostia: 373-384).
- SALABURU, P. (1994). “Euskara batuaren egungo premiak”, *Euskera* 39:2, 675-695
- VILLASANTE, L. (1956). “Gure eginbeharrak”, *Euskera*, 1: 257-268.
- _____ (1959). “Bizitzatik urbil”, *Euskera* 4: 101-113.
- _____ (1963). “Sebero Altube iztegi arazoetan maisu”, *Euskera* 8-9: 299-313.
- _____ (1968). “Antziñako euskal hitzen formaz”, *Euskera* 13, 175-201.
- ZALBIDE, M. (1991). “Euskaltzaindia euskal hitz-altxorren berrikuntza-lanean: eginkizuna eta jardupidea”, *Euskera* 36, 2, 1097-1113.